



BENCHMARKING. ERRESILENTZIA

- **Garapen Iraunkorreko Helburuak**
Garapen Iraunkorreko Helburuek eta, zehazki, 11. helburuak hiri erresilienteen kontzeptua jasotzen dute.
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/cities/>
- **UDALSAREA 2030**
Udalsarea 2030 udalerrri jasangarrien euskal sarea da, tokiko iraunkortasuna sustatzeko eta Euskadiko administrazio publikoaren maila guztien arteko koordinazioa sustatzeko helburua duena. Gainera, hura osatzen duten toki-erakundeen iraunkortasuneko ekintza-politikak eta -planak dinamizatzeaz arduratzen da, betiere Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GJH) lerrokatuta. Udalsareak 2015-2019 aldian euskal udalerriek GJHei egindako ekarpenaren azterketa jasotzen duen txosten bat argitaratu du. Informazioa aldi horretarako indarrean dauden tokiko jasangarritasun-politikatik dator, gehienak 2030 Agenda ezarri aurretik udalerriek diseinatutakoak.
<http://www.udalsarea2030.eus/argitalpenak/euskal-udalerrien-ekarpena-garapen-jasangarriaren-helburuei-3>
- **Hiriaren erresilientziaren indizea.**
Arup-ek garatua (<https://www.arup.com>) eta Rockefeller Fundazioak babestua, hiriaren erresilientzia-indizea bost urteko ikerketan eta probetan oinarritzen da. Tresna boteretsua da, hiriei erronka horiek modu sistematikoan ulertzen eta erantzuten laguntzen diena. Ehun hiritan baino gehiagotan erresilientzia-bidaia gidatzeko erabiltzen den esparru bat du. <https://www.cityresilienceindex.org/#/>
- **OCDE: Eraiki susperraldi indartsu bat: nola atera gaitzke indartuta COVID-19aren pandemiatik.**
Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak lan sakona egin du COVID 19aren eraginari, gobernuek hartutako neurriei eta horrek gizartean duen eraginari buruz. Izan ere, gaur egun herrialdeek hartzen dituzten erabakiek susperraldiaren arrakasta zehaztuko dute, eta etorkizun inklusiboago, jasangarriago eta erresilienteago baterako bidea marrazteko unea dela adierazi du.
<https://www.oecd.org/coronavirus/es>
-
- **Hiri erresilienteak garatzen 2030 (MCR2030)**
Making Cities Resilient (MCR2030) ekimen horrek, alderdi interesdun ugari artikulatuz, tokiko erresilientzia bultzatzen du eragin politikoaren bidez, ezagutzak



eta esperientziak trukatzuz, eta hirien arteko ikaskuntza-sareak ezarriz. Aldi berean, gaitasun teknikoak indartzea bultzatzen du, gobernu-maila ugari lotzen ditu eta aliantza estrategikoak sustatzen ditu, eta hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta iraunkorrak bermatu nahi ditu 2030. urtera arte. Horrela, zuzenean laguntzen du 11. Garapen Jasangarriaren Helburua (11. GJH) eta beste esparru global batzuk lortzen; Hondamendien Arriskua Murrizteko 2015-2030 Sendaiko Esparrua, Parisko Akordioa eta Hiri Agenda Berria barne.

<https://mcr2030.undrr.org/sites/default/files/inline-files/MCR2030%20in%20Spanish.pdf> /

Hiri erresilienteak garatzen kanpaina

Hondamendien Arriskua Murrizteko Nazio Batuen Bulegoak garatutako Hiri Erresilienteak Garatuz Munduko Kanpainak tokiko gobernagarritasunari eta hiri-arriskuari buruzko gaiak jorratzen ditu, tokiko gobernuari hiri-eremuan arriskua murrizten eta erresilientzia handitzen laguntzeko, 2015-2030 aldirako Hondamendien Arriskua Murrizteko Sendaiko Esparrua aplikatuz.

Kanpainak konponbideak eta tresnak eskaintzen dizkie tokiko gobernu eta eragileei, haien erresilientzian hutsuneak identifikatzeko eta arriskuaren garapena eta kudeaketa planifikatzeko finantza-, teknika- eta ezagutza-gaitasuna handitzeko. Kanpainaren bidez, hiriak mundu mailan erresilienteak diren hirien arteko aliantza zabal baten parte dira.

<https://www.eird.org/camp-10-15/index.html>

- **Hirien erresilientziaren Gida**

NBE HABITATEk garatua, Hiri Erresilientziaren Gidak, sektoreen arteko ikuspegiarekin egina, jarduera-esparrua ezartzen du, udal-agintariak, nagusiki, arriskuak prebenitzeko, herritarrengan duen eragina murrizteko eta berreskurapenerako eskema hobek sortzeko ekintzak diseinatu eta ezarri ahal izan ditzaten.

<https://onuhabitat.org.mx/index.php/guia-de-resiliencia-urbana>